

BIKTOR GARITAONAINDIA (1876 - 1976)

Egun ederra lengo larunbatez Zaldibar'en emana. Epel ta gori jotzen zigun eguzkiak, maiatze-ko goiz zoragarri baten bezala. Ez dakit orrela joko zuanik B. Garitaonandia munduratu zanean; baiña aren jaiotzatik eungarren urte-eguna, orrela izan zan eder-ederra benetan.

Amar t'erdiak ziran ni oneratu nintzaneko, ta orduko ba-zan jendea ni baiño goiztarrago jaiari berea eman nairik ona eldua. Emen ziran Euskaltzaindikoak ainbat, emen Bizkai'tik, Araba'tik, Naparroa'tik eta Gipuzkoa'tik Aldun agintari, jakintsu ta enparauak; baita mugaz andik etorriak ere: zazpi euskal probintziek zeukaten zerbait ekarri ta esan bearra euskal idazle ta apaiz eredugarri izan zitzaigun B. Garitaonandia Zaldibar'ko seme bikaiñari.

Zaldibar erria ere gertu zegoan, edo-ta gertakuntzak amaitzen, bere semearen jaiotz-urte betea alik eta ondo ta egokien ospatzeko. Or geneukan Udaletxe berria, eder ta aberats oraintsu jaso, alkate berria ere, B. Lasuen, buru zalarik; or ainbat lekutatik etorritako agintari ta agintari ordezkooak; or ainbat gizon argi, teatru-zale, euskal idazle, euskal literatura bere maitasun eta lan joriz aberastu zuanari omenaldi bizi-bizia eskaiñi nairik.

Asierako egintza bezala, Euskaltzaindiak bere exerialdia izan zuan Udaletxeko areto berezian. Jarraian, agintari, euskaltzain, euskal idazle ta erri osoa, dantzari arkupetik, Udaletxe ondoko plazara zuzendu giñan, ango tokiari aurrerantzean izena emango dion oroitarria estalgetzera. Amabi-amabiak ziran. Gero, Udaletxeko batzar aretoan,

batzar berezia: Lasuen'dar Balentin'ek, Aita Villasante'k, Arrue apaizak, Iñaki Beobide'k itz-egin ziguten, zaldibartar jakintsuaren irudia goi-goi-jarriaz: Ambrosio Zatarain'en lana ere irakurri zan.

Ongi etorri, itzaldi ta txaloak amaiturik, Udaletxe azpiko erri liburutegian B. Garitaonandia'ren eres-paper, liburu, esku-idatzi ta argazkiak ikuskatu genituan: ainbat gauza eder dituzte irakur-gela ontan gizaseme jator arenak. I k u s g a r r i a duzu idaztitegia, liburu ugariz ornituta. Euskerazkorik gutxi baiño ez genduan ikusi; Zaldibar, ala ere, euskal erria, euskera zalea; bertoko kaleak ere merezi lukete erdel-izen orde euskal izenak ematea; edo-ta bietara jartzea, euskeraz ta erderaz toki askotan dauzkaten antzera. Alkate berriak egingo du nonbait olako zerbait.

Aitaturiko gomutagarri oiek poliki ikusiaz gero, erriko eliz aurrera zuzendu giñan. Emen dauzkagu iru oroitarri elizari diotela. Bi B. Garitaonandia'ri eskeiñiak; erdikoa orain 21 urte, ots, 1955-12-4'an, jasotakoa da; jai gomutagarria ospatu zan orduan ere; onen ondoren, eskumatik, orain Zaldibar'ko Abesbatzak zuzendu ta bere pentzura jarri duan irugarrena; guztiz dotore egiña duzu, zaldibartar jakintsuaren jaiotz-urte mendea ospatzeko egin eta jarria.

Emen gera, arri au estalgetzean, len aitaturiko guztiok: erri-agintari, eliz-gizon, euskaltzain, senitarteko ta erria orogailluari begira gengoza, Fernando Garitaonandia, Koraleko buru ta jai auek eratzeko lan ikaragarria egin digunak, beste ainbatek lagunduta, estalgetu zi-

gun arri-tente bikainki landu ta xixelatua. Begira gengozenen txaloak, aize-bolada bizi ladek lez, astindu zituan inguruak.

Onela iru oroitarri dauzka B. Garitaonandia'k erriko eliz-aretan: bera il ta bi urtera, 1932-8-28'an, bere jaiotz-etxeko orman Zaldibar erriak ipiñi zituan, 1955-12-4'n jarri ziona, ta oraingoa, 1876-1976. Bertatik abestuan bertoko Koralak «Agur Jaunak», guztiok zutik eta buru-as gengoza; baita ainbat dantza eder agert-erazi ere bertako dantzari txikiak. Aurreko bikaiñez amaitu zan goizeko jaialdia.

Ordu biak ziran. Anaitasuneko bazkaria ondoren «Urretxa» jatetxean. Eta bazkari ostean, arratsaldeko seiretan, an giñan geienok eta erria, elizan batu giñan azkenez, aren gomutaz eta zaldibartar il guztien alde meza ederra Jainkoari eskeintzeko. Zazpiren artean izan zan meza bertoko txauburua erdiko zala. Meza bitartean B. Garitaonandia'ren ainbat eres-kanta abestu zituan bertoko Koralak, ederki beti bezala. Irakurgaien ostean, Aita Onaindia'k egin zuan itzomenduaren bizitza ta lanak alpatuz, aren euskal-giro zaletasuna, idatzi zituan ipuin, antzerki ta «Argia» asterokoan utzi ziguna, alegia, ispillu lez guretzat jarririk. Eliz-gizonak ere bide asko dituzte beren arloa betetzeko.

Labur: jai ederra, paketsu ta euskal-giro utsean, angoak eta emengoak, B. Garitaonandia'ri eskeiñia. Eder bai-da olako gizonak jasotzea. Bedi bera guztiontzat eredu.

AITA ONAINDIA

URANGA JATETXEA

Toki ederra, giro polita, etsera damutuko onutsa etorrita.

URANGA 411007
LEDELA

Tesis Equiguren Olazola

ELECTRODOMESTICOS

Avda. Ortiz de San Pelayo, 19
Urr. 811616

AZPEITIA
(Guipuzkoa)